


IRABAZI ITURRIAK

Irabazi iturriak oso garrantzitsuak izaten dira enpresa batean, haiek ekoizten duten ondasunak ala eskaintzen duten zerbitzuak eta haiek ekoizteko behar diren kapitalak (makinak, langileak...) finantzatzeko balio duelako. Guk horretarako, hainbat enpresekin egingo dugu lan eta baliabide ezberdinak erabiliko ditugu dirua bestelako iturrietatik lortu ahal izateko. Izan ere, gure sarrerak produktua saltzean oinarritzen dira, hortaz, diru gehiago lortu ahal izateko bestelako ekintzak egingo ditugu.

Diru Sarrerak



Hasieran, produkzioarekin hasteko inbertsio bat egingo dugu. Bankuari mailegua eskatuko diogu eta etorkizunean dirua irabazi ahala itzuliko diogu. Kalkulatu dugunaren ustez, proiektua lasaitasunez hasteko 40.000€ behar ditugu. Diru kantitate horrekin, materialak, lan-eskua eta bestelako gastuak finantziatuko ahalko genituzke, eta gure diru sarrerak aktiboen salmentan oinarritzen direnez, gure diru propioa irabazten hasiko ginela aurreikusten dugu.

Behin “Ecobike” batzuk ekoizita eta salduta, horrek sortzen duen diru kantitatearekin bizikleta gehiago autofinantziatuko genituzkeen. Horren ondorioz, produkzio ziklo egonkor bat lortuko genuen, non irabaziak gastuak baino altuagoak izango diren.

Gure produktuaren kostua 699,99€-koa izango litzateke. Prezio arrazoitua da, izan ere, nahiz eta Media Markt-ekin dugun elkartearen ondorioz gure produktua ekoizteko baliabideak merkeago lortzeko ahalmena izan, garbigailuaren prezioa 200€ ingurukoa da eta bizikleta estatikoaren prezioa berriz 125€, beraz nahiko garestia izaten jarraitzen du. Bi produktu hauek elkartzeak prezioan handiketa bat eragiten du, lan eskua eta funtzionamendu egokia bermatzen duten materialak ordaindu behar direlako. Gastu hauek guztiak gehituta produktu bakoitza ekoizteko prezio 425€ ingurura iritsiko litzateke. Honekin ikus daiteke gure enpresak izango lituzketen irabaziak, zehazki produktu bakoitzarekin 275€ gutxi gorabehera irabaziko lirateke.

Gure enpresaren diru sarrerak hiru zatitan banatzen dira: salmentak, harpidetza-prima eta publizitatea.

Hasteko, diru sarreren portzentai handiena produktuaren salmentatik lortuko dugu, %85-eko portzentai nahiko altu batekin. Bizikletaren prezioa 699€-koa izanik, egingo ditugun beste ekintzek baino diru gehiago emango digu.

Ondoren, diru sarreren beste %8-a bezeroek gure enpresan harpidetzearen irabaziko genituzke: bMhiX *premium*. Harpidetzen diren bezeroek hainbat abantaila izango dituzte, adibidez: gure harpidetuek hilabetero Vanish Gold produktuaren 600 gramo jasoko dituzte. Horrez gain, deskontuak izango dituzte gure produktuetan; bizikleta pertsonalizatzeko hainbat artikuluetan. Azkenik, seguru moduko bat izango dute bizitza guztirako. “Eco bike”-aren arazo mekanikoak konpontzeko soilik. Hautsi egiten badute ez da seguruaren baitan sartuko. Horren truke hilabetean 4,99€ ordaindu beharko dizkigute. Harpidetza hau, diru gehiago lortzeko helburuarekin sortu dugu, gure harpidetza duten bezeroek abantailak izan ditzaten. Harpidetza gure produktua erosten duten bezeroentzat eгина dago.

Eta amaitzeko, gure web-orrian egindako publizitatearekin irabaziko dugu, baita gure bizikleta garbigailuaren pantaila pizten denean ere. Honekin diru sarreren %7a lortuz. Hasteko, Media Markt, bere merkatuan saltzen uzten digulako, publizitatearekin itzuliko diogu mesedea, besteak beste. Gero gure garbigailurako gomendatzen dugun Vanish gold xaboia, hauek gehien ordainduko digute eta horregatik beraien xaboiak gomendatuko ditugu gure garbigailuarentzat. Horretaz gain, BH bizikleta estatikoak egiten dituen enpresa ere agertuko da, gure proiektuaren aldeko apustua egingo baitu. Azkenik Juan Ibañez Tailerrak, eskainiko digun konponketa zerbitzuarengatik, beraiekin truke moduko bat egingo dugu. Tailerrak konponketak eskainiko dizkigu eta guk horren truke publizitatea. Gure web-orrian, produktua erabili ahal izateko intrukzioak egongo dira eta baita gurekin harremanetan jartzeko aukera ere. Gure irabazi iturriak, enpresaren hazkuntzan lagunduko digute, hauek dira irabazi iturri nagusiak: produktuaren salmenta,